

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zezilia Arenaza Altuna

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1922)*

Aurkibidea



Biografia



Azatza (Aozaratz) auzoko Zelaikua baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik laugarrena. Ama bertakoa zen, eta aita berriz Areantza auzoko Txikinakua baserrikoa. Zazpi urtetik hamarrera Aozaratzako auzo-eskolan ibili zen, eta gero hilabete batzutan kalean mojekin. Umetatik joaten zen egunero Arrasatera etxeko esnea saltzera. Aretxabaletako Taberna Berrin kamarera jardun zuen ugazaba senideari laguntzen. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu, eta lehenagoko bizimoduaz azalpen zehatzak ematen ditu. Bere senarra izango zenaren etxera, Perunanera, josten ikastera joan zen garai batean. Baserri honetara ezkondu zen, etxeko Andres Anduagarekin. Sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARE-012

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-04-21
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin

ARE-013

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-04-21
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARE-047

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-06-10
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aretxabaletako hainbat auzotan desagertutako baserriak

- **Erref:** ARE-012/002
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aozaratza auzoan jaiotakoa Zelaikua baserrian. Urkuluko urtegia egiteko baserría bota behar izan zen; ondoren berria eraiki zuten handik gertu. Beste baserri batzuk ere bota behar izan ziren. Urtegiak, Urkulu baserríaren izena hartu zuen. Desagertutako baserrien izenak Aozaratzan (Azatza) eta Koruetan.

Transkripzioa

- Esaten dozu Azatza auzuan jaixotakua, eta basarrixan izena zein zan?
- Zelaikua.
- Zelaikua basarrixa?
- Bai.
- Eta gitxi gorabehera ze urtetan bota zan? Edo... presia noiz ein zeben?
- Horixe ez dakit.
- Oin dala berrogei bat urte edo?
- Ez, gutxiau. Horixe zeroi in euenien.
- Orduan...
- Presia in euenien bota euen, presiak hartu euen.
- Eta gero [...] barrixa?
- Ta gero hor ein giñuan barrixa, bai. Goixan. Geure terrenue zan, bertako terrenue, ta, ba, [...].
- Eta aittatu zenduan presa... bueno, presia eitteko basarri asko hustu ein bihar izan ziala, ez?
- Bai, bai, bai. Horretxen moduen, bota ta... Han [euroin] atzekaldien da beste bat barrixe eindde, Urkulu. Oin urek, zeak... hori dauko presiek, hori esaten dotse, Urkulu izena, baiña basarrixe hantxe indde dao geurien atzekaldien, Urkulu. Hango izenien, hango baserrixen izenien hor da eindde barrixa.
- Eta zeuen auzuan gitxi gorabehera zenbat basarri galdu zian edo?
- Ba, bat, Zarbiarte bi, [Ogiñekue] hiru, Aldaixena lau eta [Aiñabarreta] bost. Bost basarri.
- Eta beste auzuetan be galdu zan basarririk? Koruetan edo hemen...?
- Koruetan bai, Koruetan asko. Ez, hemen ez, hemen bat be ez, baiñe Koruetan... Aber kontetan dittudan: Iraban bat, Mendikurtza bi, [Gisatx] hiru, [Usaar] bixek bost, [Ziondo] bixek zazpi, Urkulu zortzi, ta gero lurrek hartu otsen zera Markiteiri, baiña baserrixa han geldittu zan. Baserrixa han dao. Baiña baserrixen iñor egoteko moduen ez. Oseake, jaixetan edo etorten die, baiñe...
- Orduan, Koruetan be basarri asko galdu zian...
- Asko, beatzi.
- Eta hemen, berriz, esaten dozu bapez, ez? Auzo honetan...
- Ez, ez, hamen ez. Hemen ez, ez zan galdu. Eta Barrutikue be bai, beatzi, hamar be bai. Ez dot kontau.

2. Auzo-eskolak; eskola kontuak

- **Erref:** ARE-012/003
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Umetako bizimodua Azatza auzoan. Auzoan eskola txiki bat ere bazegoen. Abadeak ematen zuen eskola Koruetan. Auzoan egon ziren abadeen izenak. Azkenengo urteetan maistra bat ere izan zen. Azatzako eskolan, maistrua egon zen. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Umetan, orduan, Azatza auzuan, ez dakit, zelan izaten zan zeuen bizimodua? Nun jolasten zenden edo...?
- Ba, jolastu eskolara faten gitzenien, bestela [...].
- Han elixa kanpokaldian edo...?
- Azatzara. Gu Azatzen.
- Bai, hori da.
- Ta Koruetan, ba, abadiak emuten [eben] gure txiki denporan, auzoko abadiak emuten e[b]en eskoloi.
- Zeuek eskolara nora juaten ziñazien?
- Azatzara.
- Bertan...?
- Bai.
- Ze zan, abade-etxian edo...?
- Ez, eskolia...
- Eskolia?
- Bai, eskolia euen.
- Auzo guztietan zeuan eskolia?
- Ez, hemen ez euen. Ez abadiak eta ez iñok ez [eben] emoten hemen. Hemenguek, parte, Koruetara faten zien abadiana; Azatzara be bai batzuk.
- Orduan, Azatzen eta Koruetan zeuan eskolia?
- Bai.
- Eta zeñiek emoten zeban? Abadiak?
- Abadiak. Don Genaro euen gure denporan eta gero don Boni. Ha fan zan gerra denporan, ba, ez dakit bere zerera fan zan. Bizkeikue zan. Ta gero, hoixe, [ez zan argittu] ta gero beste bat jarri zan ta [...]. Ta gero, atzenien, beste maistra bat be egon zan. Baiña [ha] Francon aldekoa, e?
- Eta gerra aurreko, bueno, zuk ezautu zenduzen abadiak ze zian bertakuak, hemen ingurukuak, edo...?
- Ez dakit. Azatzen nire txiki-denporan edo, bueno, eskola-denporan euen gerra denporan hil zan, Bizkeikue zan. Hor Bizkeiko auzo batekue zan. Gero beste bat egon zan Gatagakue. Bai. Bai, [... ikusten zan] etorri zanien be, ya zera zan, [...]. Beste urte batzuk ein zittuen harek be. Gero haren hurrengo beste bat egon zan Arrasatekoa, San Pedro. [Fraille] famosua [hori], San Pedruok. San Pedro.
- Eta abadiak emoten zeben beti eskolia, ez?
- Ez, ez, ez. Azatzen ez, e? Azatzen ez eben emoten eskolaik abadiak.
- A, ta zeñiek emoten zeban eskolia, orduan?
- Ba, maistro batzuk. Nire zerien, denporan... Gero zerak be egon zien, maistrak be egon zien, baiña ya guk alde ein ta gero.
- Orduan, Azatzen eskolia zekazuen. Mastruak be kanpotik etorritakuak izaten zian edo hemen ingurukuak?
- Bai... Ez, hemen ingurukoik hor ez zan egon. Maistro bat, maistro bat guk euki geena aragonesa zan. Aragonesa.
- Eta ze ein zeban denpora asko hemen?
- Bai, bastante ein eben, bastante denpora; urte batzuk ein zittuen.
- Eta nun... ez dakit, nun bizi zan hemen zeuanian?
- Ba, gure aldameneko baserrixen euen apopillo.
- Apopillo?
- Bai.
- Eta eskolara zenbat urtekin edo juan ziñan lehelengoz?
- Sei bat edo eukiko nittuen, behintzat, sei-zazpi bat bai.
- Orduan auzo guztiko umiak juango ziñazien eskolara, ez?
- Bai, bai. Bai.
- Edade diferentietakuak, neskak eta mutil... danak batera...

- Danak, danak, danak. Ez zan egoten zerik. Gero maistrak be egon zien, baiña maistrak be danak.
- Danak batera...
- Danak batera.

3. Eskolako kontuak

- **Erref:** ARE-012/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan zer ikasten zuten. Eskola nolakoa zen. Sei urterekin hasi eta bederatzirte ingurura arte egon zen bertan.</p>

Transkripzioa

- Beste zer ikasten zenduen eskolan, Historia edo, mapak edo, Geografia edo?
- Ba, nik ezta kitta, zan halako liburu bat, danien liburu bat ibilli geben, besterik ez geben ibilli. Danetik euken liburuak.
- Kuadernorik eukitzen zenduen? Pizarratxo baten idazten zenduen?
- Bai pizarretan. Kuadernoik ez. Etixerako zerik-eta ez geben ibiltten.
- Jartzeko tokixak-eta, mahixak-eta zelakuak zien?
- Bankuek.
- Eta tinterorik eukitzen zeban?
- Bai, tinterue geu mantxetako lain be bai. Ha mantxetako behintzet ona izeten zan, eskribiduteko ezta kitta, e.
- Orduan sei urte ingurukin hasi eta noiz arte egon ziñan eskolan?
- Zortzi-beratzirte? Bai, beratzirte bat urte.

4. Ume-umetatik baserrian lanean; eskola

- **Erref:** ARE-012/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Urte sasoi batzuetan baserrian lan gehiago egoten zen eta eskolara joan gabe gelditzen ziren. Umetako lanak baserrian zeintzuk izaten ziren. 11 urte bete aurretik Arrasatera joaten hasi zen esne-saltzen.</p>

Transkripzioa

- Eskolan egon ziñan bittartian askotan imajinatzen dot sasoi arabera basarrixan be lan asko egongo zala.
- Bai.
- Geratzen ziñan batzutan eskolara joan barik?

- Batzutan bai, eta pozik gaiñera. Eskolara fatia baiño gurago. Ittaurren esaten gutsen, ganauei aurretik-eta, lagunketan.

- Orduan umetan zetan laguntzen zenduen basarrixan: ittaurren itten, ez dakit, beste zeozetan, amari edo zeozetan?

- Ba ura ekarri, eta horrek lanok izeten zien txikixe nintzen artien, horreik, baiña bueno!, orduen agudo zerketan zien. Guk arto sartzen be igual eta. Ya hamaika urtegaz hasi nitzen esniekin, hamaika urte kunplidu barik neukala. Arrasatera astuaz, e. Ez euen, kamiñoik be ez euen. Ibilli biher zan trenbide, oin be han dau, bide-estrada, ez naz pasau ez dakit noz ezker, ez dakit. Hor esniekin nabillela ez dait zelan pasetan nitzen. Han, handik, Otala-zelaittik behera dauen zeretik ibiltten gitzen. Baiña oingo aldien, oin bide ona dauela esaten daue pasetako. Baiña txarra, e, burdixek danak bertatik, eta gero neguen-eta dana lokatzarie eitten zan. Bueno, txarra, txarra, txarra. Eta gorutza, berriz, aldatza izugarrixa ta.

5. Itulan egitea ez zen lan xamurra

- **Erref:** ARE-012/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Itulan nola egiten zen. Idien aurretik beti norbait behar izaten zen; ez zen lan xamurra baina eskolara joatea baino nahiago izaten zuen.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu umetan ittaurren egiten zenduela. Hori zela egiten da?

- Uztarrixan ikusitta eukiko dittuzu ganauek, ezta? Jakingo dozu horrenbeste. Zure denporan ez zan uztartuko. Gurien ez dakixe uztarrix zelan ibiltten dan, honeik hemen daazenok, neriek bai, e. Lobak ez.

- Idixak zekazuezen orduan?

- Idixek. Idixen aurretik bat zertu biher izeten zan. Batzuk ondo eitten euen, baiña beste batzuk sekula be ez zien hezitzen, eta eskiñetan buelta eraitteko-eta, baten bat biher izeten zan aurretik.

- Eta zer izaten zan, bihar aspergarrixa? Gustokua?

- Eskolara baiño gurago. Ona ez, baiña eskolia baiño gurago etxien geldiketia.

- Eta umetan ez da peligosua toki aldapatsuetan-eta?

- Bai, ume-umetan ezin leike ibilli. Lekun baten esan euen, orduen be baten batek [...], hobatuko utsen-eta, ez dakit xei urte-edo, idixek pasau ein euela, azpixon. Sustue galanta, bai. Hak be gauzak haundirik ez euen eingo, baiña. Hurrengorako ikesi deixen, hantxe ibilli.

6. Iturritik ura eraman behar egunero etxera

- **Erref:** ARE-012/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Iturritik ura ekarri behar izaten zuten egunero. Urkulu inguruan bi iturri zeuden. Bata oraindik bertan dago; bestea desagertuta dago. "Beheko iturrixe". Umetako ibilerak.</p>

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu ura ekartzen zenduala. Hemen Urkulun bi iturri zeren?
- Bai. Bat han dao zeran gaiñekaldian, kamiñuen gaiñekaldian. Baiña guk ekarten gebena...
- Galduta?
- Hartu...
- Eta izenik bazeuken iturririk?
- Beheko Iturririxak esaten gutsen, guk hartzen gebena. Handik hartzen euen Urkulukuek, gero Koruetak [...], horrek laurok handik hartzen euen, handik iturritik. Eta Azatzan geu, eta geure gaiñekaldian euen, oin azpikaldian da, Etxaluze. Horretxek, geu bixok, besteik ez zan faten. Gero goikora faten zien Sarrialde-Aldaixena, Aiñabarreta (?), horrek goikora faten zien. Eta zuendako beheko iturriko ura hobia zan?
- Fiñaua. Eukan metal gehixao bestiek, goikuek, oin daonak. Lagunak-eta handik ekarten auen, eta sarritan juntetan gitzen, eta bertatik. Lelengoko tragua, lelengoko zera aittajaunak. "Goiko iturritik ekarri dozue!". Barriro bielketan ez giñuenien, pozik, behekotik ekarten. "Goiko iturritik ekarri dozue!" Ixilik egon biher.

7. Gurasoen jatorria; baserri izenak

- **Erref:** ARE-012/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Gurasoak nongoak ziren. Aita "Txikiñekue" baserrikoa. Ama, Zelaikue" baserrikoa. Amandrea bertakoa; aittajauna, San Prudentzio auzokoa.</p>

Transkripzioa

- Basarrixan historixia badakizu? Aitta bertakua zan?
- Ez, aitta hemengotxe etxekua zan. Gure aitta.
- Nungua?
- Hemen azpikaldeko etxekua, basarrikua.
- Zer izen zeukan basarrixak?
- Txikiñekua.
- Eta ama?
- Ama bertakua. Aittajauna zan San Prudentziokua. Barrena.

- Bergara aldekoa?
- Bai, Bergara jota. Amandria etxekua. Bertako-bertakua.

8. Gerra garaiko egoera: baserria jendez beteta

- **Erref:** ARE-012/016
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Baserria nolakoa zen: logelak. Gerra garaian 25 lagun egon ziren baserrian bizitzen. Bonbardaketak Arrasaten. Kaletik etorritako hainbat familia hartu zituzten beraienean. Kaletik ekartzen zuten ogia, baba-lapikoa...</p>

Transkripzioa

- Zelakua zan basarrixa?

- Habitaziñuak euken bost habitaziño. Eta beste bat behien, sotanuen-edo beste bat. Han beste bi uhe egoten zien; bestietatik kendutako uhe atzeratu batzuk, behintzet bi uhe... Etzitteko moduen egoten zien, e. Eta goixen bost habitaziño onak. Gerra denporan hogeta bost lagun juntau gintzen basarrixen, e. Arrasatetik familixa bat, Arriaran, pelotarixak izenikuak. Esnie erueten gutsen, eta suertau jaten, andrien aitte geixoik euen, ez dakit Zarautzen... Zarautzen ez. Deban edo, hospittalien, eta ha zainketan fan biher eben amak. Eta gero bonbak eta zerak botaten zittuen puntuen behin Arrasatera, Arrasaten jentie billurtute euen, eta ba aber etorriko zien, lekua eukiko... Eta hartu gittuen: aitta lau umegaz. Aitta faten zan lanera, hojalaterue zan, eta aitta faten zan lanera goxien eta illunkaran etorten zan. Baiña lau seme-alaba gurien egoten zien. Gero beste bi familixa kaletik, gure amen anaia, eta emaztia eta bi seme-alaba gurien; eta gero tia alarguna, ha be umetxo bategaz horrax. Umetxuoi hil jakon, geldittu zan bakarrik baiña. Eta geu be kuadrillia. Geu be xei-zazpi seme-alaba, aittajauna-amandriak, hamaika lagun.

- Urte gogorak, basarrixa haundixa izan arren?

- Bai. Eskerrak ogixa emuten oskuela kalian. Bost ogi horrek zerekuok, lau libra, edo ez dakit ze eukiten euen, ekarten gittuen egunero. Egunero ekarten gittuen Arrasatetik. Arrasaten euen panaderixia. Eta gero babie. Eta babie ugari geuken etxian. Baba-lapikokada bat ifiñi.

- Lapikokada haundixa.

- Haundixa, haundixa, haundixa, haundixa. Eta txarriak-eta be, ba bi txarri hiltten gittuen-eta. Txarrikixe be bageuken eta bueno, ba haretxegaz. Eta gero patatie be bai. Patatie etxien hartzen geben, eta horrek gauza gehixok ba...

- Inguruko baserrietan pasau zan kanpotik jentia etortzia?

- Bai, etxekon batzuk edo bai, baiña ez, gurien lako kuadrillaik ez. Eske edozein lekutan ezin leikien holakoik manteniru, e.

9. Baserriaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ARE-012/017

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserri handia. Sukaldea nolakoa zen. Beheko sua; txapa. Ur-depositua nork eta noiz egindakoa. Garai hartan baserri askotan oraindik urik ez etxe barruan. Komuna nolakoa zuten. Argi elektrikoa ere betidanik ezagutu du etxean.</p>

Transkripzioa

- Sukaldia zelakua zan?
- Sukaldie, orduen ez euen butanorik eta zerik. Txapia, txapia ona.
- Zure akorduan?
- Bai. Nire akordu guztian txapia. Gero beheko sua euan aparte. Ogixa eitten zan labian, e, zerian, euan beheko sua; eta beste sukalde bat, ha aparte.
- Zuek kozinau nun eitten zenduen, txapan?
- Txapan, txapan.
- Beheko sua ez geben ixoketan. Neguan, neguan hotz haundixekin, e, ba. Baiña bi egunetan, e. Gogaitt eraitten otsen beheko sua eitten [...] Hurrengoko egunien ez geben eitten. Umiekatik. Han endreguan suagaz-eta.
- Ur korrienterik bazeunken?
- Bai, bai, Ure, deposittue ein eben gure..., Ameriketean euen tio bat etorri zan, eta guk posaderatik bonbias ataraten geben, posaderia geukan, ura, etxeonduan, holaxe. Eta fregaderan bageuken ura aurretik be. Akordetan naz, e; horregaz justo-justuen akordetan naz. Baiña fregaderan-eta bageuken ura. Eta hak ein oskun lau zegaz teillatuan gora zer bat, depositua, lau hanken gaiñien. Eta gero handik habitaziño danetara, komunera eta danera ura.
- Beste baserritan bazeuken ur korrienterik?
- Leku batzutan deposituek-eta bai, baiñe ez, askotan ez. Ez. Komunera-eta be askok ez. Ur korrientia.
- Eta komuna zelakua zan? Egurrezkua?
- Ez, oingotxien moduko zerak, komunak.
- Umetan be bai?
- Bai. Oin, beste batzuk ur barik, goittik behera, [...] -
- Eta argixa?
- Argixe oingue modukue ez. Baiña elektrizidadie bai. Baiña ursalto txiki batetik erunda hara, buf! Gaurkua moduko denporiaz-eta, batien zera bota dauela, besteko eztakitt zer zala, erdixetan argi barik.

10. Lihoaren inguruko lanak; ehulea

- **Erref:** ARE-012/018
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Lihoa (linua). Amak lihoarekin haria egiten zuen etxean. Eskoriatzan zegoen ehuleari haria eraman eta hark tela-pieza egiten zuen. Gauetan kandelarekin lan egiten zuten. Lihozko arropak, izarak. Kirruzko izarak. Gorua, txarrantxa. Lexiko interesgarria.</p>

Transkripzioa

- Lehenao farolak-eta. Hori zera eitteko, liñuak-eta. Hemen erropak be etxien eitten zien. Arropa zurixe, e.
- Eta zuk hori ikusitta ez dakazu?
- Ez, zela itten dan-eta ez.
- Baiña entzunda?
- Entzunda, Bueno! Bueno! Guk geure amai entzunda. "Guk euki baginxon hau argixau, geldittu be ez gintzonan eingo". Kandeliaz, gabetan kandeliaz lanien, e. Harixa eitten euen.
- Eta liñua zeuek ereitten zenduen?
- Bai, guk ereitten geuen liñua.
- Eta badakizu zela zan prozesua? Landaria zelakua zan edo?
- Ez. Hazixa ikusitta neukan, baiña landaraik ez dot ikusi liñuanik.
- Bihar asko zeukan liñuak, ezta?
- Asko, asko esaten dabe. Ama josten hasi zanien, diru apur bat atarako eben jostekuekin-eta, itxi eutsiela esaten euen, eruen zera, harixe, ez dakit Eskoritzan edo non euen eulioi edo eitten zittuenoi, telie itten ebenoi, eta gure amandria zera baiño fiñaua zan, eta eruen harixe, eta gero harixe trukau. Ein zen zeroi, izerok-edo eitteko telioi basto-basto-bastua. [...]. Eta orduantxe zertu ziela, desengaiñau ziela, eta amak esan ebela telok izengo ziela erosteko-ta. Baiña ikusitta bai. Gurien izerak-eta [...]
- Orduan zer zeren, hari klase diferentziak? Batzuk fiñaguak eta beste batzuk bastuaguak?
- Bai. Bueno, diferentzia haundixa, haundixa. Nik, e, hemendik aittek eruenikuek ikusitte neukan izerak. Ez dakit ze in gutsen. Gero han egon zien estreiñeu barik. Oin ez dakit ze in gutsen. Dozena bat izera. Amak esaten euen motzegixak ziela, uherako motzegixak ziela. Eta egozen estreiñeu barik, komodan egoten zien. Eta haik zien kaleko harixa lakotxiak, mehe-mehiek, eta bardiñek! Fiñek! Batetik bestera diferentzie eukitten euen. Zela itten zan harixe.
- Entzunda daukazu kirrua? Hori takarraua ala fiñaua da?
- Ez, kirrue bastuaue. Gero horrek kirru horrek... holako zer baten pasau, eta nik ez dakit zertzuk esaten zittuen.
- Orduan amak harixa eitten zeban, amandriakin batera?
- Bai. Behin josten hasi zanien asko ez eben eingo, baiña gabetan ibiltten ziela esaten eben.
- Goruetan guruakin?
- Bai. Goruekin, eta txarrantxie esaten dutse, beste holako zer batzuk eukitten zittuen, burdiña batzuk. Eta haregaz pasau eta nik ez dakit zenbat... "Honeik argixok euki baginttun, geldittu be ez gintzonan eingo". "Hemen daukotzu oin".
- Beste basarri batzuetan be berdin egingo eben sasoi baten?
- Bai. Oin iñok be ez. Hortxe, hortikaldeko etxe baten oiñurrengo eingo euen, e, hori harixoi-edo. Hemen bestek iñok be ez. Hemen be ez, ez Azatzan, han be ez, hemengo basarrietan iñok be ez.
- Esan dozu eulia Eskoriatzan zeuala?
- Bai.
- Orduan hara harixa eruan eta berak egin?
- Bai. Berak piezia ein-eta.

11. Haria, galtzerdiak eta abarka-sokak

- **Erref:** ARE-012/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:41:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Artilearekin haria egiten zuten. Ardirik ez baserrian, eta artilea erosi egiten zuten. Amandreak galtzak egiten zituen, eta aitajaunak haria. Ceciliaren senarrak eta haren aitak, "traillak" edo abarka-sokak egiten zituzten baita ere. Horretarako ardi beltzen artilea erabiltzen zen.</p>

Transkripzioa

- Liñuakin haria egin bai, eta artilliakin edo itten zeuen?
- Ez. Artilliakin galtzaak.
- Orduan artillia be erabilli izan dozue.
- Artillie hemen. Han ardirik ez geuken eta. A, han be bai, aittajaunek eitten eben, erosi eitten geben han, han ez geuken ardirik. Hemen bai.
- Ardirik ez eta erosi itten zenduen artillia?
- Ulia erosi, eta gero berak zerketan euen, aittejaunak. Holako zer batzuetan pasetan eben, eta gero haria berak eitten eben. Eta galtzak amandriak, neguen. Eta hemen nire gizonak be eitten eben. Gizonen aittek, harek galtzak be bai. Gizonen aittek han zeak. Eta traillaak, kordioek, abarkentzako kordioek, horrek be bai. Hortarako ardi beltzen ulie ekarten euen kordioek eitteko.
- Galtzak eta jertserik eta ez zan egitten?
- Ez, jerseik ez. Ez naz akordetan. Jerseik ez.
- Ta bihar horrek beti ingo zian gabian illuntzixan?
- Horrek negun, negun. Kanpuen ezer ezin leikienien ein, orduntxe.

12. Baserriko sukaldea

- **Erref:** ARE-012/020
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:41:25. **Bukatu:** 00:44:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Sukaldean egoten ziren armairu eta bestelakoak. Kobrezko galdarak; "edarria". Txerria hiltzen zenean, odolosteak egiteko, ura kobrezko galdaratan berotzen zuten. "Gelatzue". Harrizko platerak.</p>

Transkripzioa

- Sukaldian argi elektrikua, bonbilla txikiren bat bai. Sukaldian bestela zer gehixago egoten zan? Mueblerik edo aparadorerik?
- Bai. Armaixua. [...]. Egoten zien bi armaixo. Eta gero suen gaiñien euen zer bat eindda, txapien gaiñien, han galdaraak, kobrezkuek eta, laruek, edarrie-ta, ure karrietako zer bat, ontzi bat, ez dakit ikusitta eukiko dozun.
- Zelakua zan edarria? Zabala behian eta estua goixan?

- Bai, goititik estua eta behera hola zabal. Eta ha zan metalezkoa.
 - Baiña ha zuk ez zenduan erabiliko?
 - Ez. Aurretik, aurretik. Aurretik, bueno. Ez, gure amak eta ez.
 - Kobrezko galdarak zertarako erabiltzen ziren, dekoratzeko?
 - Bai, azkenien garbiketako bakarrik. Garbixek ikusi biher. Hantxe. Hamabostien behin edo garbittu ein biher hantxe eukittek.
 - Eta sasoi baten zertarako erabiltzen ziren?
 - Ba ni akordau-akordau eitten naz, e, mortzillek-eta eitten zienien txarrixa hiltten zanién, gurién ure beroketako, beheko suen ure beroketako. Txintxiliz egoten zan, ez dakit akordauko jaten, holako katai bategaz egoten zan zera...
 - Gelatzua?.
 - Bai, gelatzue. Zeuk gehixao dakitzu nik baiño, hemen ez dot ikusi-ta. Baiña zerién, neure etxién ikusitta nao. Eta hori, txarrixa hiltten zanién ibiltten zan ha. Zela astie-ta zela euken.
 - Zela bazkaltzen zan, mahaixan jarri eta erdittik jaten zan, ala bakoitzak bere platera zeukan?
 - Hori leku batzuetan bai, baiña geurién ez. Gure amandriek jan be ez eben ingo, ez eben jango. Hola, batetik? Ez, ez, bakotxak bere platotik.
 - Orduan zer izeten zien, porzelanazkoak?
 - Harrizkuak-edo izengo die, oingotxe modukuek eozen. Esaten eben porzelanazkuak be, baiña kaskau eitten ziela eta ez dakit zer eitten ziela; ez, gurién harrizkuek egoten zien.

13. Lixiba nola egiten zen; ehunezko arropak

- **Erref:** ARE-012/021
- **Iraupena:** 0:06:30. **Hasi:** 00:44:55. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Lixiba nola egiten zuten. Astero egiten zena, "jabonadurie". Amandrea burdia hartu eta otzara handietan albergara joaten zen arropak garbitzera. Lixiba nola egiten zuten oso ondo azaltzen du. Ehunezko arropak. Beraien garaian, Bergarako tela-fabrikatik ekartzen zituzten tela-piezak.</p>

Transkripzioa

- Erropia garbitzeko, lixibia eitteko, zela ibiltzen ziñaten?
 - Guk jabonadurie esaten gutsen, astekue, asteko erropie eitten geuen etxién. Eta iñoiz zeozar baeuen, zurixa-edo gauza zeren batero, faten gitzen albergara, errekatxue euen lekura. Eta askotan..., oin zerak hartu daue albergia, urek eta hartu [...] han Urkulure bidien, errebuelta haundi bat handikaldetik dauen lekuen, hantxe dau albergia. Eta hola erropa asko geukenien eta urak etxién zertuta eozenien, mermauta eozenien, gutxittuta eozenien, burdixan hartuta faten zan haraxe. Gure amandrie, e, bera izeten zan; eta gure modukoren bat inguruan izeten euen, baiña gizonai burdixen eruen eraitten utsen otzara haundixetan, eta gero zerak, baldiek-eta zerok erueten zittuen ura beroketako eta zerketako. Hantxe. Egurre ifintten utsen gizonak ha txintxilizketako, baldie, beroketako, ure beroketako, eta hantxe jabonetan eben bertan; erropia bertan, albergie

esaten gutsen, albergan. Ure beruen infintten eben, eta jabonau, eta gero tiñia. Lehenao tiñaak izeten zien tximitxekin, zerakin, zumaakin egiñikuek izeten zien erropientzako; baiña gurien baldie ifinitta euen, bestelako baldie. Zertu, jabonau, eurek jakitten euen, zurixe zurixekin, eta kolorezkoik baeuen, kolorezkuek aparte. Zurixe zurixekin, gero han tiñioi, gero han jabonau eta sartu, gero sutan ure berotu...

- Hori albergan?

- Bai, albergan, albergan. Egun guztia eitten eben, e. Gero askotan siketuta ekarten eben. Denpora ona igual, sasi-illerak eozen bide-ezkiñetan, eta zertu ahala, aklarau ahala, han botaten euen eta siketuta ekarten zittuen; hola arropa txikixak-eta siketuta ekarten zittuen handik.

- Jabonau eta tiñan sartzen zenduen?

- Bai, tiñan sartu eta hari ure bota biher izeten jako. Eraiñutza ifintten utsen gaiñien, eraiñutze eta sutako hautsa. Ifintten utsen, izera zer bat, usetan etzan izera bat ifintten utsen gain-gaiñien. Eta gero hori hautsoi eta eraiñutze, usaiñe emuteko.

- Hautsa zertarako, garbitzeko?

- Hautsek zera dauko, hola laban..., jaboie moduen-edo emuten dutsa hautsek. Ez dakit. Hautse eta eraiñutze. Eta botaten utsen gero ure. Hasten zien lelengo epeletik, tenplaua lelengo. Eta atzenien irekitteraiño botaten utsen. Lelengo tenplaua, gero apurtxo bat berotxuaue, gero berotxuaue... faten zien lau edo bost mailletan. Eta atzenien irekitteraiño botaten utsen ura.

- Hola egitten zien arropa haundixak?

- Izerak-eta. Izerak eta arropa zurixa.

- Eta gero aklarau nun?

- Bertan.

- Eta zelan esaten zotsazuen, erropia eskuridu-edo, bihurrittu-edo?

- Han, harrixan, harrixan.

- Eta hortarako zer bihar izaten zan, pare bat persona?

- Ez, ez.

- Bakarra nahikua?

- Bai, oingo moruen, zeren moruen ez utsen kentzen ura, baiña; gero zerera botata eguzkixek kentzen utsen.

- Eta eguzkixa zertarako, erropia zuritzeko?

- Sikeketako. Zuritzeko ez dakit. Sikeketako. Haxie baebillen, aguro sikeketan zan, baiña bestela kosta eitten zan. Gaiñera horrek arropa senduok, esaten dotsut, gurien arropa sendoik orduko, gure akordurako gutxi ebillen; batzun-batzuk geuken gordeta "como recuerdo", baiña ohietan (?) gutxi ebillen. Gero suertau zan, tia bat egon zan Bergaako tela-fabrika baten zerbitten, eta handik be asko jazten gitzen zegaz, erropaakin. Arropa azula ta zurixa eitten euen. Eta piezak ekarten zittuen handik.

14. Jostunak Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-012/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Ama jostuna zen. Hasieran Aretxabaletan eta ondoren Bilbon ikasi zuen josten. Etxera itzuli zenean, baserriz baserri ibiltzen zen josten. Baserri izenak. Senarraren arreba ere, jostun ona.</p>

Transkripzioa

- Eta ama joskiña zala, ta nun ikasi zeban badakizu? Hemen inguruan edo kanpora erten zan?
- Lenengo Atxabaletan esaten eben ibilli zala zer bategaz; ez dakit modista-modistie be ez dakit zan, baiña behintzat haregaz lelengoko zera. Eta gero Bilbon. Bilbon euen amandrien anai bat. Bilbon bizi zan, eta hak zuzendu utsen nun ikasi. Atzenien sastrerixan ibilli zan, aurretik ez dait.
- Gustau egitten jakon?
- Bai. Kortie-eta sastriena eukan. Sastriena eta bestiena, baiñe atzenien sastriagaz ibilli zan.
- Gero berriz bueltan etorri zan basarrira?
- Bai. Hemen etxeik etxe ibiltten zan lelengo. Gure akorduen ez, baiña lelengoko josten hasi zaniien, basarririk basarri ibiltten zan.
- Makiniakin?
- Bai. Makina kaxkarren bat eukiko eban, etxeik etxe, neu be akordetan naz batzukin. Baiña amagaz ez naz akordetan.
- Basarriz basarri, eta erropia edo esandakua amaittu arte bertan geratzen zan?
- Bai. Hurrien baeuen, etxera erretiretan zan, baiña urrin baeozan, konpaziño baterako Ugazteira eta be faten zan, aste guztireko holako lekuetan, akabau arteko, dana akabau arteko, lau etxe be baeozan, eta baten akabaten euenien bestera fan biheko eban.
- Eta zer egitten eban, baserrixetakua.
- Bai, baserrixetakua
- Nahikua, ez?
- Esaten eben Arkarazon be egoten zan, ta Ugaztein be bai, ta Larriñon be bai, ta Koruetan be bai eta. Etxietako zerok esaten zittuan. Gure akordurako ez ia, behin familixia ta eukierien ez; etxetik.
- Bertara etortzen zien?
- Bai, bertara ekarten dotzien, bai.
- Eta ezkondu eta gero be segidu egin zeban josten?
- Bueno! Lehen denpora guztien. Oin atzen-atzenera kanpokoik ez eben hartzen, etxekuek gure aiña. Orduan jositta ez zan eoten ezebe. Ez euen ezebe jositta. Ezebez jositta.
- Eta ezkontzan baterako ero?
- Topau ein biher. Hortarako bat edo bi zerak eozen. Bat hemengo nire gizonen arrebie.
- Zer zan, joskiña?
- Bai. Joskiñe ona. Arrasatetik-eta zertxuok etorten zien. Atxabaletatik-eta, ondotxo jazten zienok, edo jantzi gura euenok.

15. Umetako arropak

- **Erref:** ARE-012/023
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetako arropak. Asteguneko eta jaiegunetako arropak. Mutilak 12-13 urte ingurura arte, fraka motzak erabiltzen zituzten. Neguan botak eta udan sandaliak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Erropia behintzat amak egindakua. Zer arropa?
- Bataak esaten guntsan guk. Eta gero domeketarako beste zeren bat hobatxuaua jazteko.
- Eta mutillak?
- Hamabi edo hamahiru urte artien fraka motzak.
- Uda eta negu?
- Bai. Esporten batzugin, galtza esporten batzugin.
- Eta oiñetakuak?
- Oiñetakuek, e. Lelengo, gure aitta zanai ez jakon gustetan, gomazkuak.
- Abarkak?
- Abarkak gomazkuak. Umientzako ez jakon gustetan. Berak ibiltten zittuen, baiña umientzako izardixa eukiela, ez jakon gustetan. Eta guk neguen botaak, eta udan sandalia batzuk, edo telazko zapatillan batzuk. Neguen botaak. Arrabixue botairi, ikusi be ez gittuen egin gure, takarraran eitteko-eta, bueno! Zer bat eitten oskun... Eta danak ikusten gittuen abarkakin.
- Abarkak narruzkuak?
- Narruzkuek? Gure aurretikuek narruzkuek esaten euen, guk ez gittuen horrek narruzkuek ikusi.
- Orduan zuek narruzko botak.
- Bai, narruzko botaak. Hoba biherrez eitten oskuen, baiña guk abarkak gurago takarraran eitteko-ta. Zegatik harek labanduta edo zertu eitten zien botaak, e. Botak zien danak materixalezkuek, ez euken gomaik-eta azpitan-eta be, eta labandu eitten zien, hola edozein zeretan labandu, eta ez gittuen gura ikusi be egin, bueno. Hareikin zazpi-zortzi bat urte arte. Gero honeik oingo abarkok zertu zienien, e, bueno, konbenzidu gittuen hobiek ziela eta. Pozik abarka honek zuzendu gittuenien.

16. Amandrearen arropak

- **Erref:** ARE-012/024
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Amandrea nola janzten zen: gona luzea eta txanbrea. Buruko zapia; amantala. "Meriñue". Buruko zapia nola ipintzen zuen. Jaiegunetako arropak.

Transkripzioa

- Amandria eta aittajauna zela jazten zien? Amandria zelan gogoratzen dozu?
- Amandrie, honaiñoko gonaak.

- Ixa lurrerañokuak?

- Bai. Eta gonie, e, gonie; bataik-eta ez nutsen ezautu; gonie eta txanbrie.

- Txanbria zeri esaten dotsazu?

- Telazko..., holaxe bataakixe, trajien moduen eukitten eben, goikue eta behekue iguala, mediolutoko tantodune, holako zerak. Eta gero buruko paiñolue iguala.

- Amantalik edo usatzen zeban?

- Bai, beti amantala.

- Soruan edo ortuan lanerako?

- Bai, eta etxerako; eta zererako be bai, jaixetarako be bai.

- Baiña orduan diferentia izango zan?

- Bai.

- Dotoriagua?

- Bai, dotoria. Buruko paiñolue be bai. Meriñozkue, meriñozkue, meriñozkue.

- Zer da hori?

- Zer apartekue izeten zan. Fiñe, e, estanbrien moduko..., meriñue esaten utsen. Buruko paiñolue holakua.

- Eta buruko paiñolua zela ipintzen zan? Bi puntakin?

- Puntaakin, puntaakin. Goixen bi punta tente, eta beste bi hemen ataraten utsen; ez, hemen bat, hola alde batera, eta goixen bi.

- Eta ule guztia tapauta?

- Ez, apur bat bistan. Bera dotore ibiltten zan. Iñok be ez utsen ifintten, e, laogeita hamahiru urte ein jakon, baiña paiñoloik ez utsen iñok jantzi. Berak.

- Buruko paiñolua gaztetan ez zan eruaten?

- Gaztetatik ibiliko eben harek, harek gaztetatik ibiliko eben.

- Ezkonduta gero jazten zan?

- Ez, ez. Harek uste dot lelengotik ibiliko ebela. Hoixe ez dakit sano esateko baiña. Ha behintzet ezkondu zaneko fotografixan be paiñoluagaz dau.

- Amak erabiltzen zeban buruko paiñolua?

- Ez, gure amak sekula ez eben jantziko buruko paiñoloik. Ez dot uste. Ez dakit neskatan edo...

- Orduan hasi ziren ohiturak aldatzen, eta poliki-poliki joan die...

- Bai, bai.

- Eta mutillak txapelik erabiltzen zeben?

- Eta gero kolorezko zerik be ez sekula be. Betik mediolutua edo baltza.

- Eta hori lutuan zerelako edo betidanik?

- Betidanik. Nik ez nutsen..., beti ez eben eukiko lutua. Baiña nik ez nutsen ikusi beste erropaik. Eukitten zittuen jakiñeko zerak: trajia; orduen astegunetan be ba ahal zanienez mezetara fan itten zan; lan gutxitxo edo; zela mezie egunero egoten zan, mezetara faten zan. Baiña harako ifintten eben mediolutoko trajia, mediolutoko paiñolua. Harek ez zien izeten lanazkuek, harek izeten zien tela korrientiak. Perkalak-edo ez dakit zer esaten utsen, tomanak (?) edo, gure dana. Baiña ha zertxue, trajetxue, jantziko eben mezetarako.

17. Jai egunetako arropak

- **Erref:** ARE-013/001
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Jai egunetan janzten zuten arropa nolakoa izaten zen. Gizonezkoen arropak.

Transkripzioa

-Baiña beste bat barrixa eitten jakonian, e.
-Orduan jaiegunetako, mezetara joateko traje hori?
-Ha geldi; harakotxe jantzi, eta halaxe.
-Gizonezkuak zela jazten zien? Txalekua erabiltzen zeбен?
-Txalekua? Neguen eta bai, baiña bestela nekez. Zerien brusie, astegunien.
Astegunien, ba, guriei ez nutsen asko zertu. Aittai bapez, eta aittajaunei
hola basora fateko-ta. Bestela brusie.
-Makillarik-eta erabiltzen zeбен?
-Ez, ez.
-Basorako-edo?
-Ez. Ez basorako eta ez besterako harek.
-Eta Txapela?
-Txapela bai, txapela kendu barik. Aittak be bai. Txapela.
-Baiña galtzen joan zan ohittura hori. Lehenago ume-unetatik danak
txapelakin?
-Klaro. Txapela.

18. Fraideen sermoiak

- **Erref:** ARE-013/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:09:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Abadeen eta elizaren indarra gizartean. Fraideak etortzen ziren kanpotik sermoiak botatzera.

Transkripzioa

-Abadie errespetu haundixa eukitzen jakuen?
-Bueno.
-Herri inguruan be bai, baiña baserrixetan gehixago?
-Gehixao. Abadiak esan ezkerro, bueno!
-Eta sermoiak?
-Bai, baiña sermoiek emuten, e, berak emun zerok, zer esan-eta berak
emun, eta gero etorrenak plasta-plasta esaten zittuen; klaro, eurak esaten
utsen zer esan-eta.
-Zer etortzen zien, kanpotik?
-Arkarazotik-eta. [...]. Ez naz akordetan, baiña urtietan Arantzazutik, Padre
Alkain-edo ez dait ze esaten euen, ekarten euen; han San Antonio dau
Azatzen, eta San Antonio egunian jaixa izeten zan, oin ia itxitta, San
Antonio egunoi jaixa, bueno; egun bat izeten zan, baiña jai. Eta
Arantzazutik ekarten euen fraillioi sermoia eittera; sermoioi holakua izengo
zan, nik sekula ez neuen entzun.
-Zeuk ez zenduan hori ikusi?
-Ez. Eta aurreko...
-Aurrekue zan, aurrekue zan, baiña esanak entzunda.
-Eta zer ziren, sermoi gogorrak?

-Bai. Zertzuk esan eurok esaten utsen. Eurok ekixen zer esan, hak ez zekixen zer esan handik etorritta, baiña eurok esaten utsen zer esan; eta gero ba askotan ez jaten gustetan, auzokuei ez jaten gustetan hori. Eta urtietan etorri zan, esaten euenez, eta urteen baten gehixa eskatu berak sermoioi eittiagatik, ez dakit zenbat kobretan ebela sermoia, eta gero Abadenien bazkaixe-ta. Eta gehixaa eskatu [...]. Eta gizona falta ei zan auzuan, han juntaan, eta ez eozela-eta, danak ez eozela, danak konforme ez eozela, eta ez eozela ainketako. Han egozenak esan ei utsen, hurrengoko zerien egongo zala, eta emungo utsela kontestaziñua. Hurrenaoko jaixen juntau die danok, eta falta zan gizonoi be bai. Falta zan gizonoi, jakingo euen zeozer, eta esan ei utsen: "Hemen, e -zela jakon izena, Kristobal edo, eta-, hemen sermoirako gehixaon eskabidie dao hemen, gehixao pagetako eskabidie dao hemen. Ze eingo ete jako, ainddu-edo?" "Lehen daon zererañño ein deixela eta ixildu..., lehen pagetan jakon tamaiñuraiño ein deixela sermoioi, eta ixildu dai...", bestiorrek, eta orduan akabau ei zan zeroi.

19. Aste santuko sermoiak

- **Erref:** ARE-013/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:40

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Sermoiak botatzera noiz etortzen ziren. Aste Santuko sermoiak. Abadeei berorika egiten zitzaien.</p>

Transkripzioa

<p>-Orduan pagau eitten jakuen sermoia eittia? -Pagau, pagau sermoia eittia. -Hori noiz izaten zan, Garizuman? -Ez. Hori eneruen izeten da, eneruen hamazazpitan izeten da. -Egun bakar baten etortzen zien? -Bai. San Antonio hori jaixe, zera izeten zan. -Bestela ez dozu entzun bardiña, Garizuman-eta frailliak etortzen zirela sermoiak eittera? - Bai. Egunetan egoten zien, batzuetan hiru egunekuek… -Eta derriorra izaten zan elizara juatia? -Bueno. Atsaldetan egoten zan funtziñua. Eta fraillen bat etorten zan; konfesiñuak-eta eitteko lelengo preparau ein biher izeten zan. Bai, Azatzen be akordetan naz; hemen ez naz akordetan sekula. Hona etorri ezkerro ez sekula. Hona etorri ezkerro Azatzen be akordetan naz. Baiña hola zentruao baten ifintten auen, jentie faten zan auzuetatik, Garizuman ezta eoten hainbeste zer han be-ta.</p>

20. Klase desberdinetako hileta-elizkizunak

- **Erref:** ARE-013/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Klase desberdinetako hileta-elizkizunak. Auzoan, lehenengo mailakoak izaten ziren elizkizun guztiak.</p>

Transkripzioa

-Sei abade, zela? Inguruko guztiak etortzen zien?
-Bai. Hoixe.
-Eta zuk entzunda daukazu entierro klase diferentiak?
-Bai.
-Eta sei abade zer izango zan, primerako entierria?
-Bai. Danak zien primerakuak. Hemen baserrixetan danak zien primerakuak. Zegatik e ez dakit zenbat meza emuten zittuen libiri eta labero, gure aittai ez jakon gustetan.
-Zelan?
-Libiri eta labero esaten utsen.
-Zeri?
-Entierri horri gure aittek-eta esaten utsen, zegatik e aguro hasi eta akabau biher izeten eben mezioi eta zeroi, ez euen eukitten astirik.
-Eta hori zan libiri eta labero?
-Ba hori da ganauek zainketan gebitzela, gu hemen eta beste batzuk han, eta beste batzuk han, eta orduan zerraduraik-eta ezebe ez euen-eta, eta illunkaretan-eta danok, neskatilla-mutikuok ganauzain eskola ostien; eta baten bat ikusten bagontsen ganauak txarto ebixela-edo beste baten zelaixan ebixela-edo, deittu eitten gutsen: "Libiri ta labero, bai ganauzaiñe, kakaganauzaiña, ganauzaiña logure, ganauek jaten gure aiña".
-Eta gero hori, libiri eta labero, abadiagatik esaten eben?
-Bai, aguro eitten euelako eta zikilimakalia eitten euelako, libiri eta labero esaten utsen. Gure aitten kontuek [...].
-Eta esaten dozu [...] meza haundixak. Eta entierria be pagau egingo zan, ez?
-Bai, pagau eitten zan, ez dakit zenbat anega gari... Guk eta Matikuak ez. Gurien ez dakit ze pasaute eozen abadiaaz, ez zan ezer zerketan.
-Baiña bestela?
-Baiña gero ez utsen, ez euen zeri be eitten, e; hola entierrie ein bihar bazan be, hola meza bat emuten eben, ez dait bi abade-edo, laguntzaille, baiña gero ez euen eitten hori entierruoi, e.

21. Ohitura zaharrak; bederatziurrena

- **Erref:** ARE-013/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:22:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Bederatziurrena; ondra-bazkaria. Ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

-Baten bat hiltzen zanian, ondra-jana eitten zan?
-Beratziurrena, beratziurrena.
-Entierrian ostian merixenda edo bazkaixa?
-Bazkaixe, bazkaixe. Bai, bai, bazkaixe. Horrek be kendu zien, bueno.

Arratsaldien eitten hasi zienien ba, bazkaixoi kendu zan. Oiñ abare bategaz, eta kitto.

22. Hilarriak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-013/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hilarrien inguruko azalpenak; ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

-Eta hillarrixak esaten dozu basarri edo familixa bakoitzak beria zeukala?
-Bai, bakotxak bere hillarrixak eozen.
-Eta kendu zien?
-Bai.
-Eta horrekin lotuta ohitura asko zeren. Baten bat hiltzen zanian hillarrixan zeozer ipiñi bihar zan?
-Bai. Hori beti eoten zan ifinitta, kandelak, kandela bi egoten zien.
-Kandela bi?
-Bai, eta gero beste o(ho)ltxo bat...
-Nahiz eta hildakorik egon ez.
-Bai, bai. Haik beti, haik beti. Gero baten bat hiltten zaniene, lazue ifintten jaten, lazo beltzak kandlei.
-Eta gero trapuren bat ipintzen zan?
-Trapue bai, trapue baltza ifintten zan azpitan. Gero zer bat, ohol bat; eta gero trapu zurixe barrero gaiñien oholera arrimauta. Hillarrixak zerak izeten zien, polittak izeten zien.
-Gero jaiegun guztietan hillarria joan bihar izaten zan?
-Bai, hillarrira.
-Zaintzera?
-Bai, zainttu bihar izeten zan, hala be oholien zera baeuen, hari emun bihar izeten jakon berriro [...].
-Zer zan?
-Hori mehioi.
-Argizaiola?
-Bai. Hantxe dao. Halakotxie, halakotxie. Halakotxie, holako egurtxo bat izeten zan, hankaakin, aldebixetatik eukitten zittuen hankaak oholak, eta han batzen zan hori, eta gero [...].

23. Manta beltza; hilarriak

- **Erref:** ARE-013/014
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:27:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Manta beltza nolakoa izaten zen. Zapi zuria.</p>

Transkripzioa

- Eta mantia edo trapu baltza zer izaten zan, puntilladuna?
- Ez, liso-lisua. Hola estanbre..., pañuzko zer bat.
- Uste dot lehenguan esan zenduala; hori plantxadorian lana izaten zan?
- Bai, bai. Zurixe plantxetan zan; ha baltza han egoten zan, sueluen botaten zan; haren gaiñien zurixa.
- Eta zuri hori eruatzen zan platxandoriarengana.
- Bai.

24. Soroen bedeinkapena

- **Erref:** ARE-013/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:30:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Udaberrian, soroen bedeinkapena egiten zen; arrautzak ematen zitzaizkion orduan abadeari.

Transkripzioa

- Abadiak, eztakitt ze hilabetetan, soruak-eta bedeinkau egitten zittuen, ez?
- Ba, bai. Arrautzak batzen zittuen.
- Eta hori noiz izaten zan?
- Hori urebarrixen, urebarrixen. Ointxe Garizumie pasau ta laster.
- Orduan be zeozer emuten jakuen?
- Arrautzak. Bai. Ba dozenan bat arrautza bakotxak, eta arrautza pillue, saltzeko.
- Eta saldu eitten zittuen?
- Klaro! Zetako zittuen ba? Hau bakarrik bizi zan, eta zetako zittuen ba?
- Baiña bera etzan joango saltzera?
- Baa; dendaan batera eruango zittuan. Klaro. Bai, bai. Arrautza pillue batzen euen.
- Eta monagilluakin ibiltzen zan basarriz basarri?
- Monagilluakin ibiltzen zan, bai, monagilluakin. Monagilluak zestua eruen; berak ez, e.
- Eta orduan, gaiñera, basarrixetan arrautzak ez zien egongo sobra.
- Bai, ointxe Urebarrixen ezik. Uraatzenien bazan, ezin hainbeste, baiña oiñ urabarrixen ba oilluek be ointxe eitteittue gehixen arrautzak-eta, ugarixen ointxe. Baiña abarie izen ezkerro emun, nahiz etxien falta. Bai. Etxien igual janordue eitteko tomatiei bi bota ta nahastu eta haregaz iguel baiña, bakotxandako bana ifiñi [...] baiña, abadie izen ezkerro, holaxe.

25. Parterak; medikuak

- **Erref:** ARE-013/019
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikiak

Laburpena:

Medikuei errespetu handia izaten zitzaien. Partera lana auzoko emakumeek egiten zuten.

Transkripzioa

-Medikuei be halako errespetua eukitzen jakuen?
-Bai. Medikuei be ba bai. Medikuei be jarraiketan jakon.
-Eta medikuei be berorika eitten jakuen?
-Bai, bai. Medikuei be bai.
-Hemen bertan ez zenduen eukiko medikurik. Nundik etortzen zan?
-Atxabaletatik.
-Bidiak be ez zien izango oinguak. Zela ibiltzen zan, zaldixan ala oiñez?
-Ez dakit. Ez naz akordetan kamiñuak ein aurretik. Bai, gero motor zer bategaz, eta gero atzenerako kotxia euken, baiña. Ez dakit, ez dakit zela. Nik entzunda neuken astuen ekarri euela medikua... Ez dakit, neuk garbi esateko, ez dakit.
-Medikua. Eta parterarik bazeuan, umiak ekartzeko orduen-eta baserrixetan?
-Baserrixetan, aldameneko, ibiltten zan zeren bat, andraan bat.
-Puxka bat bazekixena?
-Bai; bai. Gure ama be leku askotara faten zan hola. Hola geixoik euen beziñue-ta, puntuen behin faten zan. Bazkaixek eitten-eta, bueno. Bazkaixek-eta, afaixe-eta.

26. Auzoetako elkartasuna

- **Erref:** ARE-013/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:35:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Baserritarren arteko laguntasuna; elkartasuna.</p>

Transkripzioa

-Orduan relaziño asko egoten zan baserritarren artian, nahiz eta auzo diferentakuak izan?
-Bai, bai.
-Halako kasuetan, etxeandria gaizki zeuanian?
-Bai, bai, bueno. Ezin baeutsan zertu, lagundu ero zertu, behintzet bai.
-Laguntasun haundixa.
-Bai. Hori abadioi, hori faten zan leku danien; iñor geixoik baeuen, illunkaran bisitetan egunero; bisittia egunero. Baiña hau.

27. Dotrinaren garrantzia

- **Erref:** ARE-013/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:43:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina amandrearekin ikasi zuten. Dotrina ongi ikastearen garrantzia.

Transkripzioa

-Abadiakin dotriña ikasten zenduen?

-Bai, amandriagaz dotriña.

-Amandriakin?

-Guk behintzet bai. Harek ekixen "Nor da jaungoikua?", beste pregunteik ez, haxe bakarrik.

-Eta amandriak erakusten zotsuen?

-Klaro, oraziñuek. Oraziñuek amandriek. Txiki-txikittatik hartuta.

-Zuek abadiagana joan orduko bazekizuen dana.

-Bai, bai. Hak erakusten euen baiño gehixao hara faten zienak. Eta gero horrek zer horrek bai, oin esan dodan horrek bai, Koruetako horrek, horrek dotriñie eskolan.

-Dotriña inportantia zan, ezta?

-Bueno! Gero Atxabaletan, neu aparte ez nintzen baiña, hor zera dana ez baekixen, hor ez euen "primera comunio" eta ezer. Puff. Eozen hiru. Bat ez zan faten, baiña bi anai, buenoo!

-Orduan dotriña ondo jakin ezker jaunartzia eitten zenduan, baiña bestela...

-Ez, ez. Dotriña ikasi bihar zan dana, e, hor zera eitteko.

28. Jaunartze-eguna

- **Erref:** ARE-013/027
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:45:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartze-egunean ez zen ospakizun handirik egiten; berak astegun batean egin zuen.</p>

Transkripzioa

-Komunio bakarra, ala txikixa eta haundixa?

-Ez, ez, txikixe; hor ez zan eitten [...]. Gaiñera astegun baten ein be. Astegun baten, ez famelixako... gurien amandria izen zan baiña; eta beste leku batzuetatik ez dakit bape, ez dakit iñor, ez naz akordetan.

-Orduan ez jakon bape inportantziarik emon?

-Ez. Ez fotografixarik eta ezebez. Ni neuri akordaten nazena da arropa guztiak barrixak ein ustela gure amak. Dana barrixa, zapata-ta ta [...] dana. Baiña nigaz ein euenak ez dakit iñor egongo zien hola barrixa einddakuak. Maiatzan hamarrien...

-Akordatzen zara?

-Bai, akordetan naz, hoixe bai. Zelako erropak ein usten be bai, eta zer danak. Bueno!, "pe a pa".

-Eta ze arropa?

-Krespoizko soifokotxo bat, behia plisaua eta zera, akordetan naz, eta gero udeko abrigotxo bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com